

Etzi
Karlos Linazasoro
Irudiak: Antton Olariaga
Xaguxar bilduma
Elkar, 2007
10 urtetik aurrera

Noiz itzuliko zain

Karlos Linazasoro idazle tolosarrak ez du haur literatura gehiegi idazten, baina, egiten duenean, bete-betea asmatzen du. “Bota gorriak” horren lekuko, 2001eko Euskadi Saria; “Bestiarioa. Hilerrikoiak” gazte eta helduen literaturen arteko liburu mugakidearen gainetik salto eginez, iaz argitaratu zuen “Hogeita sei urte geroago” hura ere proposamen deigarria izan zen, eta halakoxea da oraindik orain argitaratu duen *Etzi* hau ere bai.

Titulu iradokigarri horren azpian, adina zehaztu gabeko Mattin umearen egunkaria dago; baina, espero zitekeenaren kontra, egunkariaren egilea ez da bere buruaz ari, Bruno hamahiru urteko anaia nagusiaz baizik. Aiton-amonekin utzirik gurasoek Brunorekin alde egin dutelako dihardu Mattinek egunkari hori idazten. Bruno berarekin ez dagoela, Brunorekin etengabe gogoratzen delako. Izan ere, Bruno anaia nagusi hori berezia da: “Bruno ez da ni bezalakoa, Down sindromea du. Hau ez da oso erraz ulertzen, egun batetik bestera adibidez, zure anaia ez dela zu bezalakoa eta kontu hori guztia. Ez da eta bada. Horregatik da zaila ulertzen. Bruno ni bezalakoa da, baina ezin ditu egin nik egiten ditudan gauza pilo bat. Baina nik bezala maitatzen du, eta nobia eta dena dauka, Ixabel, eta gurasoei nik baino musu indartsuagoak ematen dizkie, eta aitona-amonei, Bruno halakoxea delako, ogi puska handi bat” (16-17. or.).

Lana, beraz, errealismo kritikoa deitu izan den horren barruan kokatzen da, hau da, umei mundua arrosa kolorekoa ez dela erakusten ahalegintzen diren horietakoa, Zarauzko Lizardi lehiaketan saritzen direnetakoa. Baina bitartekariak halako erreparoa izaten dute horrelako liburuak umei hurbiltzeko orduan, eta kasu honetan zentsuratxo hori hartzaileen adinean sumatu dut: “12 urtetik aurrera” dio atzeko azalak; baina hamar urtetik aurrera espanturik gabe irakur daitekeela iruditzen zait (hori izan daiteke, gainera, narratzailearen adina).

Distantziak distantzia, *Etzi* honek Atxagaren “Bi anai” ekar dezake gogora, anaien arteko harremanaren aldetik. Edo Zubizarretaren “Gaspar eta zuhaitzak”, Gaspar ere

Brunoren antzekoa delako, nahiz eta kasu hartan Gasparrek berak idatzi zuen bere egunkaria.

Eta horrek neure betiko gaiari heltzeko bidea ematen dit, astuna izateko arriskua neure eginez. Linazasorok bigarren mailako pertsonaia aukeratu du narrazioa bideratzeko, esan bezala lehen pertsonan eta egunkari moduan (Brunok berak kontatzea oso zaila zelako, akaso, baina ez dut istorioaren amaiera kontatuko). Baina hamar-hamabi urteko narratzaile horren adierazpidea mugatua da, noski: “Ez dakit zer gehiago esan. Hobeto moldatzen naiz futbolean, idazten baino” (8. or.). Baina, halako batean (eta orrialde berean), Mattinek hauxe idatzi du: “Goizeko zortziak dira eta ostirala zerutik zintzilik dago”. Kontatzeko aukera hori, bistan denez, oso arriskutsua da, eta Linazasoro narratzailea beste alde batera begira jarri denean Linazasoro poetak egin du bere ekarpentxo.

Bestela idazlan biribila da, ongi planteatu eta burutua, Linazasorok ohi duenez, ñabardura batekin: haurrentzat idazten duenean samurtasunak hartzen du helduenetan erabili ohi duen ironiaren lekua.

Manu Lopez Gaseni